

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Irailak 13, 117. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**RENE
HARBUSTAN,**
Arrasaten
bizi den
zuberotarra



Badatozela!

"Harizpe" Pastoralak Arrasaten

Matrikula zabalik!

- 2 eta 3 orduetako ikastaroak.
- Maila guztiak
- Matrikula-epea irailak 2tik 27ra arte.

Garibai Etorb., 14-3. (Sindikatoen etxea)
Arrasate Tfnoa: 77 03 69

æk

Izan euskaldun!



EUSKARAZ BIZI

Euskaraz Bizirik æk



Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián

ARRASATE PRESS ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Eburne Mujika

Publizitatea eta harpidetak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karnele Zuazubiskar, Juan Martin
Elxpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,
Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA
taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea,
Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Auswitcheko aingerua

Zaila egiten zait gaurko honi hasiera ematea. Zer adierazi nahi dudan ongi dakidan arren hitzak ditut faltan. Hartu dudan ezustekoak labur uzten ditu nire ahaleginak. Hala ere, saiatu egingo naiz lerro gutxi hauetan, askoz toki gehiago beharko lukeen aipamena irakurlearengana errotan. Ziur aski, Gotzonek barkatuko dit nire ausartzia. Saia nadin, beraz.

Gotzon Velez de Mendizabal, askok jakingo duen bezala, Arrasateko trinitario bat da, aurtan bere erlijioso-bizitzaren hogetabostgarren urtemuga gainditu duen fraidea, hain zuzen. Ba, efemeride hori bere estilora ospatu nahi izan balu bezala... begira nondik, opari eder bat egin digu: "El angel de Auswitch" izeneko liburua argitaratu berri du. Zur eta lur geratu nintzen, orrialde-etatik barrena hasi bezain laster; "hau duk dokumentu bikaina!" pentsatu nuen irakurketan aurrera nindoala.

Auswitch, munduko bigarren gerrateaz geroztik erokeria eta giza basatikariaren irudia bihurtu zen. Giza suntsiketarako munduan inoiz izan den kontzentrazioko landarik ikaragarriena dugu. Ia hiru milioi judutar izan ziren bertan erailak, poloniar, errusiar, txekiar eta beste nazionalitate askotako milaka pertsonarekin batera. Horien artean, Maria Zezilia Autsch zegoen,

erlijioso-deituraz Angela Maria Jesusen bihotzekoa, nazien eskuetan lau urte eta erdi zeramatzan moja westfaliarra.

Gotzonek lehen lerroko lekukotasuna lortu ahal izan du, hain zuzen ere, Angela Mariarekin atxiloturik egondako zenbait lagunengandik. Lazgarria egiten da horien testigantza, batipat giro krudel eta iruditezin hartako bizitzapenak gogoraraztean. Innsbruck, Ravensbruck eta Auswitcheko landetako lekukoek argibide paregabea eskaini diote Gotzoni eta egileak —liburuaren hitzaurrean dioen bezala— horrearen deskribapen zuzena egin nahi izan du, "hura oroitzuz gero ostera gerta ez dadin". Bestalde, Angela Mariak presondegitik ezkutuan igorritako gutundegia ere erabili du Gotzonek. Liburuaren edukina biltzen eta tajutzen urtebete luzea eman du, hilabete pare bat jazoeretako lekuetan bertan eginez.

Liburua idaztean lagun hurkoa izan du kontutan Gotzonek. Hura onartzea eta marjinauentzako laguntza eskatzearen garrantzia azpimarratu nahi izan du. Auswitcheko izugarrikeriak jasan zituen Frankl psikiatra austriarraren hitzak bere egin dituelarik, Gotzonek zera esaten digu "bizitzak, orokorrean, zentzurik baldin badu, logika berberaz sufri-menduak ere izan behar du".

Josemari Velez de Mendizabal

ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50





gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

ZANGITU
C. B.

PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK

Olaro 29
Arrasate
Tfnoa: 79 91 82

D. Irala
Bergara
Tfnoa: 76 19 54

PAZI-OLA S.A.

Zaldizpe kalea 2,
ARRASATE
Tfnoa 79 29 94

**Arrasateko Udaleko Euskadiko
Ezkerraren udal taldeko bozera-
mailearen iritzia, EAJ-PNVek eta
PSE-PSOEk sinatutako itunari
buruz**

Arrasateko udaleko Euskadiko Ezkerraren taldearen bozeramailearen hitzetan EAJ-PNVek eta PSE-PSOEk gure herriko alkatetzari buruz sinatutako itunaren ardura aipatutako alderdi biei soil-soilik dagokie. Halere, begi bistakoa da aipatutako itunak Arrasaten bizi garen denoi ere zerbaitetan ukitzen digula, eta horretxek, hain zuzen ere, Euskadiko Ezkerrako gizon-emakumeok ondorengoa azaltzera garamatza:

1) Behin eta berriro, EAJ-PNVek bere hitza emana du. Hala eta guztiz ere, kontutan izanik Arrasateko Udal Batzordea eratzerakoan azaldutako joera eta, halaber, probintzi mailan Leitzarango autobideari buruz azaldu-

tako jarrera gogoan izanik, Euskadiko Ezkerrak ez du seriotzak jotzen EAJ-PNVek emandako hitza. Are gehiago; aipatutako ituna EAJ-PNVko ardura-dunen azpijokua eta mintza-trebeziaren erakuslea ez ote den izango galdetzen diogu geure buruari.

2) Ugariak dira Arrasateko Udalak aurrez aurre dituen arazo eta erronkak. Arrazoi berberetatik, ezin dugu, orain arte bezala, zalantza eta behin-behinekotasunez jositako egoeran jarraitu; horrexetatik, zinez beharrezkoa da EAJ-PNVek bere burua argitu dezala.

Esandakoa kontuan izanik zera eskatuko genioke EAJ-PNVko Udal Batzordeari, bere burua argitu dezala alegia. Osterantzean, honako hauek izango dira egia huts bakarrak: EAJ-PNV Herri Batasunak zuzenduriko gobernua zutabetzen ari dela eta arrasatearrok denon irrifar-gai bihurtuak garela.

Aitor Orobengoa (EEko zinegotzia)




**Beti
aurrera!**

Batzuk joan eta beste batzuk etorri; hauxe da bizitzako legea!

Baina talde-lan indartsuan oinarrituriko proiektuek, beti aurrera! Badugu lemazain berria, **Iñaki Mendiguren**, eta bi hilabetez lanean izan dugun **Edurne Mujika** badoakigu, baina ordezkoa ere badugu, **Iñaki Galdos** oñatiarra. Eta lehengoak zintzo, beti bezala, **Goio** maketista, **Beñardo** kazetaria eta **Amaia** publizista.



Zer deritzozu independentziari buruzko eztabaidari?



Joseba Zabala
(Ikaslea)

Denon artean adostasun batera iritsi behar dugula uste dut. Herritarrei aukera eman behar zaie beren iritzia emateko. Nik uste dut erreferenduma egitea litzatekeela biderik aproposena.




Maria Lasagabaster
(Jubilatua)

Ni independentziaren aldekoa naiz.



Marga Sierra
(Ikaslea)

Euskaldunok independentziari buruz eztabaidatzeko eskubidea badugula iruditzen zait. Nire ustez, independentzia lor daiteke, baina zaila da.



Balentin Jauregi
(Jubilatua)

Nire ustez arazo honi irtenbidea emateko bide bakarra independentzia da.



ACEIG-FECEIko kidea

Klaseak
Itzulpenak
Bidaiak
Elkartrukeak
Udalekuak
Prestakuntza
Udako ikastaroak

*"Hizkuntza bat gebiago,
muga bat gutxiago"*

Araba Etorb. 4 Arrasate Tfnoa: 79 01 32

MUSAKOLA
OSTATUA

Taberna
Jatetxen
Bazkarlak
Bodak
Banketenk
Logelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

centers

AZAFATA ETA
TURISMO-GIDARIEN
ESKOLA

Tfnoa: 28 35 34

Siervas de Jesus (Pasaje de San Pedro, 1)
GASTEIZ

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



**13
OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "Pretty Woman" (10,30)
- Gimnasia erritmikoa: Ginka Gazela taldera sartzeko matrikula-epea zabalik. Izena emateko ordua, arratsaldeko 5.30etatik 8etara.
- Kiroldegian aerobic-ikastaro berria; matrikulatzeko epea zabalik. (Arantzazu Zubia)
- Helduen Hezkuntza-Zentruan matrikulatzeko epea zabalik.
- Erdi AEK eta Udal Euskaltegian matrikulatzeko epea zabalik.
- Goardiako farmaziak: egunez: Morales, S. Andres. gaeuz: Puy, Bergara.

**14
LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "Agárralo como puedes" (5-7,30-10)
- Eguediko 12.30etan kalejira Monterronen hasita.
- "Harizpe" pastoralara Monterronen, arratsaldeko 4.30etan.
- Gaueko 9.30etan pastoraleko afaria "Kataide" jatetxean. (Sarrerak AED, Monte eta Hiren).
- AEDk "Arrasate 91" lehiaketarako deialdia egin du.
- Goardiako farmazia: egunez: Azkoaga, Ferrerías. gaeuz: Guallar, Bergara.

**15
IGANDEA**

- Zinea: Alai: "Agárralo como puedes". (7-10)
- Goardiako farmaziak: egunez: Irizar, Erguin. gaeuz: Guallar, Bergara.

**16
ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "Agárralo como puedes" (7-9,30)
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

**17
ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "Agárralo como puedes" (7-9,30)
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

**18
ASTEAZKENA**

- Zinea: Alai: "Agárralo como puedes" (7-9,30)
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

**19
OSTEGUNA**

- Zinea: Alai: "Agárralo como puedes" (7-9,30)
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

Kirol Agenda

Txirrindua

• Eskoriatzan, igandean, goizeko 9etatik aurrera, mendiko bizikletan ibilaldia. Irteera plazan izango da, Apotzara igo, handik Kurtzetara, Jarindora eta gero Eskoriatzara buelta.

• Bergaran, igandean, goizeko 9etatik aurrera, afizionatu mailako lasterketa.

Atletismoa

• Bergaran, larunbatean, arratsaldeko 6etatik aurrera, herri krosa.

Liburuak

• "Hegats"

Euskal Herriko Idazleen Elkartek argitaratzen duen literatura aldizkariaren laugarren zenbakia kaleratu da dagoeneko. XX. mendeko euskal literaturari buruzko laugarren ale honetan, beste artikulua askoren artean, Jose Mari Velez de Mendizabal arrasatearrak, Jokin Zaitegiri eskaintzen dion bat aurki daiteke.



EGUNPASA

Kurtzeberri Eguna

Igande honetan, hilak 15, ospatuko da aurtengo Kurtzebarri Eguna. Iteera goizeko 9etan izango da Atxabaltako Panteoitik, hau da, herriko plazatik

Urtero bezala, Kurtzeberrira igotzea lortzen duten guztiarentzat, Murruxikoko antolatzaileek saida ederra prestatuko dute. Behin saida hartu eta gero, hau da, gorputzari atsedena eman eta gero, izpiritua asetzeko aukera izango da, haurrentzat aurrera meza izango da eta. Arimaren zorrak ordainduta, txanpaina eta musika dantza egin nahi duten guztiarentzat.

Urtero moduan bazkaria izango da eguneko unerik interesgarriena, eliza berrian izango da. Bazkalostean ohizko erromeria. Ea bada eguraldiak laguntzen duen, behar beharrezkoa izango da eta.

Ikastaro honetan parte hartzeko interesa dutenek, hilaren hamazazpia baino lehen Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrura edota Deba Garaiko Udal Elkartera jo beharko dute.

• Merkatal korrespondentzia euskaraz

Bastida Akademiak aurtengo ikastaro berri bat eskaintzen du, "Merkatal Korrespondentzia"ri buruzkoa, eta euskara hutsean emango dena. Ikastaro hori subentzionatua izango da, eta guztira 40 orduko iraupena izango du, egunean 2 ordu.. Eskolak irailaren 9tik aurrera hasiko dira.

Erromesaldia

• Arantzazurako erromesaldia

Igande honetan Arantzazurako erromesaldia izango dela eta, "Ecuador Bidaia"ek auto-



busak antolatu ditu, bertara joan nahi dutenentzat. Iteera Gari-baitik egingo da goizeko 8.30etan, eta Gesaltzan gertuko da, goizeko 9etan bertan elkartuko diren beste erromes batzuekin elkartu nahi dutenentzat. Itzulerako autobusa, berriz, ordubatean eta 5etan izango da. Arantzazurako sarrera ofiziala 10etan izango da, eta Meza Nagusia, berriz, 11etan.

Musika

• "Zakarrak" taldearen maketa

Duela bost urte osatutako "Zakarrak" taldeak maketa berria atera du. Petete, Michael, Patxi, Xabier eta Oskarrek ateratako maketa hamar kantuz osatuta dago. "Salinbrukis", "Si los chicos están unidos", "Skinhead girl", "Desengaño" bezalako izenburuak aurki daitezke aipatutako maketan.



Beraien kantuek punk eta skin musikaren kutsua dute, baina behar bada gehien nabarmentzen dena maketaren diseinua da, oso txukun gelditu zaie eta.

Talde hau kontratatu nahi duenak, telefono zenbaki hauek erabil ditzake: 79 45 70 (Xabi Macedo) edo 79 03 69 (Oscar Aransaez).

Ikastaroak

• "Emakumea eta autoenplegua"

Ikastaroaren antolatzaileak Deba Garaiko Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak dira, eta langangabezia dauden emakumeei zuzendua dago; hau da, eskola-graduatuak dute-entzat edo lortzeko asmoa duten emakumeentzat.



Bertan, enpresen sorkuntzarako prestakuntza eta langangabezia gainditzeko teknikak irakatsiko dira.


“.....
 Arrasaten betidanik zentralismorako joera nabaritu ahal izan da, mugak ixteko joera. Kooperatibismo berekoiarena Arrasaten antzematen den akatza da. Nire ustez, Arizmendiarrietaren azken helburua gizarte-konpromezua zen eta ez kooperatibismoa. Arrasaten, izpiritua baino, gehiago kooperatibismoaren formularen teorizazioa garatzeko arriskua dago. Gizarte konpromezuaren helburua hor dago, baina ez dugu jakin izan kooperatibismoaren formula konpromezu horretara egokitzen”.

(Mirari Bereziartua, Ikastolen Konfederaziokoa.
 TU Lankide aldizkarian)

“.....
 Hemen inbertsioa benetan eragozten duena ez da hainbeste Gobernu Zentrala, indarkeria baizik. Ardatz honen inguruan dabil antiinbertsioa bueltaka. Gutxi edo asko, errespetatu beharra dago bestela pentsatzen dutenak, baina eragin ekonomikoaren ikuspegitik benetakoa hondamendia da. Hain da horrela, ezen ia barregarria bait da hona datorren inbertsioa, ehuneko bi edo hiru bakarrik, eta bitartean Madrilera ehuneko berrogeia, Bartzelonara hogeitamarretik edo hogeitik gora, etab. Euskadik nahitaezkoa du atzerriko inbertsioa bere konpetibitatea berriz lortzeko, eta bestela, besteen mailan ez egotea gertatuko zaio. Hau Europarekin berezko bisagra izanik, egoera geopolitiko zoragarrian egonik, bortxatua dago ez dagoelako joko-arau egokirik”.

(Jesus Larrañagak, DEIA Igandean)

Zein arazo ikusten duzu Uribarri Auzoan?



Beno, Uribe Auzoko problematikari buruz hitz egiten hasi aurretik Auzoari buruzko aurkezpen txo bat egitea komeni dela uste dut. Lehenik eta behin, esan behar da Uribarri Auzoa lau aldetan banatzen dela: Arima Zuri aldea, Uribe Auzoa, Erguin aldea eta Gorostiza. Guztira sei mila eta bostehun edo zazpi mila biztanle inguru izango gara bertan. Horietatik arazo gehien dituena, edo egoera larrienean dagoena behintzat, Erguin-aldea da zalantzarik gabe. Erguinek dituen arazoaren barruan, besteak beste, komunikazio-arazoa dago, bertara ez bait da inolako garraio-zerbitzurik iristen; beraz, jendeak Kiroldegira nahiz Eroskira joateko beharrezkoa du kotxea erabiltzea. Bestalde, alde hori oso aldapatsua da, guztia asfaltoz betea, eta ez dago tarterik lorategiak edo zona berdeak jartzeko. Nik Erguinerako bi gauza proposatzen dut: batetik, Erguineko kaleak itxiak izan beharrean, irteera ematea Gautxori aldetik; eta bestetik, parke bat egitea Santutxuko ermitatik gora, baina badirudi hori ezinezkoa dela, lursail hori ez bait da Udalarena, jabe partikularrena baizik. Beste aldeak, Uribe Auzoa, Gorostiza eta Arima Zuri askozaz egoera hobean daude. Gainera, azken lau urteotan urbanizazio aldetik hainbat hobekuntza-lan egin ditugula esan behar da, nahiz eta oraindik badagoen zer egin. Dena dela, niri dagoeneko horretarako txanda amaitu zait eta ea datorren auzo-alkate berriak ildo horretatik jarraitzen duen.

*Felix Iturbe,
 Uribarriko auzo-alkatea.*


FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOB
 Auto-Eskola

Zarugalde, 46
ARRASATE
 Tfnoa: 79 29 93

Memesa
79 42 22

Bergara

• **San Martin Jaiak.** Asteburuan, Bergararrek San Martin jaiak ospatuko dituzte. Larunbat goizean, lore, barazki, fruta eta gazta azoka ikusteko aukera izango da enparantzan bertan. Toki berean, eguerdiko 12etan, Lizaso eta Egaña bertsolarien saioa. Arratsaldean berriz, herri krosa eta kalejira izango dira ekintza nagusiak. Gaueko hamarretan dantza txapelketari emango zaio hasiera frontoian, eta gero Oñatz dantza taldearen ikuskizuna izango da. Igande goizean, ohizko San Martin proga txirringarientzat eta arratsaldean tanborrada.

• Bergarako HBko ordezkariak, Bittoriano Gallastegi Alkatearen jarrera salatu dute, Gobernu Batzordeetara sartzen ez dielako uzten. HBk dioenez, Bergarako gaitako %80a Gobernu-Batzordean eztabaidatu eta erabakitzen da. Alkateak, adierazi duenez, berriz, HBkoek Batzorde-Informatiboetan egoteko bakarrik daukate baimena.



Aramaio

• **Independentziaren alde.** Aramaioko EA eta HB alderdiek Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldeko mozio bateratu aurkeztu eta Udalearen osoko bilkurak onartu egin zuen, bi alderdietako botuekin. Aurrez, Eusko Alderdi Jeltzaleak beste mozio bat aurkeztu zuen, baina ez zen onartua izan. Mozioak, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubi-dea aldarrikatzea, Estatu Euskaldun batu eta independentea sortzea, ikurriña iraunkorki Udaletxean izatea, eta akordioaren berri elkarte eta talde ugari ematea onartu zuen.

Aramaioko Udaletxeko Pleno-Aretoa jendez eta komunikabidez gainezka zegoen. Izan ere, izugarrizko jakinmina zegoen komunikabideen artean, Ardanzak EAri emandako ultimatumaren ondoren, EAK zein jarrera hartuko zuen ikusteko. Pleno-Aretoa bildutakoek erabakia txaloz hartu zuten, baita Jose Ramon Uribe Alkateak Udaletxeko balkoian ikurriña jartzea ere. Honenbestez, Aramaio Euskal Herriaren independentziaren alde jotzen duen laugarren herria da.

Aretxabaleta

• **Kurtzeberri eguna.** Murruxio Elkarteak, urtero bezala Kurtzeberri eguna antolatu du igande honetarako. Egitarauak ez du aldaketa handirik aurreko urteetakoekin konparatuz gero. Hala izanda ere, aipatu egin behar. Goizeko 9etan Kurtzeberri joateko irteeraren ordua iragarri da, Partenoian, hau da, plaza erdian. Behin gora iritsi eta gero, salda hartzeko aukera izango da. Meza, goizeko hamaiketarako iragartzen da; ondoren, musika eta txanpaina edateko aukera. Bazkaltzeko elizabarrira, eta bazkal ostean ohizko erromeria.



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a


Irakasle Eskola honek zera jakin erazten du:

**1991-92 ikasturterako matrikulazio-epaia
zabalik dagoela**

Espezialitateak:

- **ZIENTZIAK**
- **HAUR-ESKOLA**
- **EUSKAL FILOLOGIA**
- **INGELES FILOLOGIA**

Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40.
Ordutegia: 9.00-13.00



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Ofseta
Ferrerías 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40. Arrasate Tfnoa: 79 13 78

I. Arte Hamabostaldiko katalogoa

1989ko irailaren bukaeran herrian egin zen I. Arte Hamabostaldiko katalogoa argitaratzea onartu du Udalak, hamabostaldia antolatzerakoan hartutako konpromezua betez. Bertan, besteak beste, herriko hamazazpi artista gazteen lanak ezaguteraziko dira.

Udal dirulaguntzak

Udalak honako dirulaguntza hauek eman ditu euskararen inguruko kultur ekitaldietarako: 600.000 PTA "Harizpe pastoral"rentzat, 61.000 PTA "Nafarroa Oinez"entzat eta 61.000 PTA "Kilometro"entzat.

AKEIko isurtegia itxiko

Deba Garaiko Mankomunitateak Madrilera ingurugiro-enpresa bati AKEIko isurtegia itxeko proiektua egiteko eskatu dio. Isurtegi horretara botatzen dira erraustegitik ateratako erraustak.

Erraustegiari dagokionez, berriz, lau urte barru itxi egin beharko da, orduan jarriko baita indarrean ingurugiroari buruzko Europako araudia. Beraz, Deba Garaiko eta Beheko Mankomunitateek lau urteko epea dute arazo horri irtenbideren bat aurkitzeko.

Barkamen eske

Joan den astean bi pertsonen abizenak gaizki jarri genituela eta, barkamena eskatzera gatozkizue. Batetik, Santiagorako bidea egin zuten hiru txirringulari aipatu genituen, eta Joge Markiegiren ordez Manrique jarri genuen; eta bestetik, Portugalera egindako bidaiariaren artean, Imanol Ramosen ordez Muñoz jarri genuen. Beraz, barkamena eskatzen dizuegu bioi; badakizue, dabilenari pasatzen zaio.

Txandaka

NOLA PRESENTATZEN DA IKASTURTE BERRIA IRAKASKUNTZAREN ALDETIK

Ikasturte berriak betiere berezko indarra izan du asmoak astintzeko eta eskurartean ditugunak eraberritzeko eta hobetzeko.

Eta berri hau aurrerapausu bat izango denaren ustean, oraingoan ere gehiengoa itxaropentsu azaltzen garelara esatera ausartuko nintzateke.

Hezkuntz mundua noraezean aurkitzen da une honetan. Hain aipatua den eskola berriaren urratsak, bere egokitzapen juridikoa, gaur egun dauden sektore ezberdinen arteko kontsentsua, mapa eskolarren diseinua, erreforma, etab.

Behar ugari, epe laburrean burutzeko zailak, baina sortzen dituzten gorabehera eta seguritate eza direla medio, lehen bait lehen bideratu beharrekoak, hezkuntz munduko egileek lasaitasunez heldu diezaiozun geure eginkizun nagusiari: "kalitateko hezkuntzaren lortpena".

Kalitatea obsesio bihurtu behar zaigu. Honek eskolari bere bame dinamika bizitzea eskatzen dio. Es-



Txaro Iraeta (*)

kola bakoitza bera da, sentitu behar dena duen proiektuaren egile eta erantzule, gaur egungo gizarteak planteatzen dizkion erronkak sakonki aztertuz. Eskolak bere burua jantzi eta etorkizunari beti aurre egin beharko dio, ikuspegi dinamikoa, irekia

eta sortzailea bultzatuz.

Eta erronka guzti honen muienean irakaslegoaren profesionalizazioa, bere ondo egite eta dedikazioan bait dago aldaketaren giltza. Irakasleak duen garrantzizko funtzioari heltzeko ilusioa berpiztea da eskolak lortu behar duen lehen helburuetarikoa.

Ondo legoke hasi berria dugun ikasturteak eskolak bide honetan jartzea. Astiro baina tinko eta etengabe birmoldatuz joan behar duen Hezkuntz Egitura eta Proiektua garatzeko gure herriak garrantzizkoa du ikasturte honetan eta etorriko direnetan egingo duen lana.

(*) *Hezibideko Arduradun pedagogikoa*

Felipe Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia ARRASATE Tfnoa: 79 22 76



Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE



Eguraldiak laguntzen badu ikuskizun polita gerta daiteke

Pastorala Monterronen

Larunbat honetan 80 antzezlarirekin

Hilaren 14ean arratsaldeko 4.30etatik aurrera, Monterroneko parkean "Harizpe" pastoralaren antzezpene egingo da. Antzezpenean 80 lagunek hartuko dute parte, guztiak muskilditarrek. Datu bitxi bezala, esan daiteke antzezpenean parte hartuko duen zaharrenak 60 urte dituela, gazteenak aldiz, 5 urte.

Muskildi, Zuberoan kokatutako herria da, Maule eta Donibane Garazi artean, 285 bizilagunekoa. Herriska zuberuar honetan nekazaritza da iharduera garrantzitsuena; Maule, Baiona edo Paben lan egiten duenik ere badagoen arren. Nekazal giroa nagusi bada ere, muskilditarrek euskal kulturaren aldeko jarrera argia erakutsi dute azken urteetan: duela 6 urte pastorala antzeztu zuten, 87an maskarada, aurten berriro pastorala, eta gainera 20 lagunek osatutako dantza-taldea antolatzea lortu dute.

Antzezpenearen bidez, Joanes Ixidor

"Harizpe"ren bizitza ezaguteraziko da. Aipatutako pertsonaia 1768. urtean Baigorri jaio zen, iraultza frantsesaren gorabeherak ezagutu zituen, eta militar karrera egin zuen general izendatu arte. Baigorritarra 1855 urtean hil zen eta Lacarren ehortzi zuten, bizitza osoan gudukatzeaz gain, zazpi probintziez Euskal Herri autonomoa sortzeko ideia bultzatu zuen gizona.

Pier Paul Berzaitzek idatzi ditu Baigorriko militarren gorabeherak, eta bera da hain zuzen antzezpenean "Harizpe"ren papera egiten duena. Berzaitz kantari izandakoa da, eta pastorean berak egindako 18 kantu entzun daitezke. "Harizpe" pastorala 1989an idatzi zuen, iaz antzeztu zezaten, baina Jean Louis Davanten "Abadia Urrustoi" pastoralarekin batera atera ez zedin atzeratzea erabaki zen. Pier Paul Berzaitz "Harizpe"ren idazle eta protagonista bada, bere anaiak, Michel Berzaitzek, zuzendari lanak betetzen ditu.

Usteak uste

Oporraldiaren ostean, hartu du berriz ere Arrasatek ohizko iharduera-maila. Ireki dira dendak, ekin zaio lanari enpresetan eta udal-zerbitzuak ere hasi dira ostera funtzionatzen. Egin dezakegu iadanik bizimodu normala.

Pasa den abuztuan, ordea, urtero bezala, herriko bizitzaren erritmoa etenda egon dela esan daiteke, "Oporrengantik itxita" dena, ia-ia biztanleok herritar gisa bizi ezin izaterainoko modu kezagarrian.

Udalak aztertu egin behar luke arazo hau eta zer egin daitekeen pentsatu, hurrengo urtetara begira egoera aldatuz joateko.

Abuztuan itxiko duten dendak eta saltokien egutegia koordinatzea, udal zerbitzu ezberdinen funtzionamendu-irizpideak berrikustea —ahal direnak irekita mantenduz—, edo eta, zergatik ez, entretenimendu eta denborapasarako programazio berezia eta aproposa eskaintzea izan daitezke hartu beharreko neurri batzuk.

Ez dadila, behintzat, Muxibar eta Musakolako errepide bazterretan honelako letrero bat ipini beharrik izan: "Arrasate abuztuan itxita". Horrela izaten da eta.

H. Z.

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Sancho Abarka, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ileapaindegi mistoa

Erguin, 15 etxabehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE

Ikasturte berriarekin hasteko gogorik bai?




Ibai Irastorza, 6 urte

Bai. Ikastolara joan nahi dut irakurtzen ikasteko. Asko ikasi nahi dut, handia egitean butanero izateko.



Maddi Urizar, 3 urte

Astelehenean hasikonaiz, eta oso pozik nago.



Mikel Gonzalez, 5 urte

Desiatzen nago ikastolara joateko. Ikastolan hobeto pasatzen dut oporretan baino.




Nerea Makatzaga, 9 urte

Oporretan hobeto nago ikastolan baino, baina hala ere, ikastolara joateak ez dit pena handirik ematen.



Iban Delgado, 8 urte

Nahiko aspertuta nago hainbeste oporrekin, eta alde batetik desiatzen nago berriro ere ikastolan hasteko.



Iker Arostegi, 11 urte

Ez dut ikastolara joateko gogo handirik, askoz hobeto nago oporretan eta lagunekin jolasean.



Tania Mendez, 10 urte

Ikastolako lagunekin hobeto pasatzen dut oporretan baino. Pozik nago berriro ere itzultzeko.




Gorka Gerra, 11 urte

Triste nago, ez dut ikastolan hasi nahi. Nahiago dut orain bezala jarraitu. Futbolan jolastu, bizikletan ibili, jaietara joan, etab.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA Tfnoa: 79 91 84




Kontzezlano 2
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa Etorbidea 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Urriburu 24
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Garibai etxearen ondoan ireki dute "Arrasate" hotela.

Azkenik hotela Arrasaten

22 pertsonak lo egiteko tokia dauka

Joan den asteazkenean, Arrasateko lehen hotelak bere atea ireki zituen arratsaldeko 8etan, era horretan inauguratuta gelditzen zelarik. Hotelak, "Arrasate" izenekoak, 12 gela dauzka hiru solairutan banaturik: bi lehen solairuan, bost bigarreanean, eta gainontzeko bostak hirugarren solairuan. Aipatutako hamabi geletatik, hamar bikoitzak dira eta beste biak ohe bakarrekoak. Beraz, hotelak guztira 22 pertsonarentzako lotokia dauka.

Jose Antonio Zarraoa eta Mertxe Arana dira hotelaren jabeak Iazko ur-

tean, ikusirik Arrasatek industri eta ekonomi ihardueraren ondorioz jende asko erakartzen zuela, hotela egitea erabaki zuten. Garibai Etxearen ondoan dagoen etxea hotel bihurtzeko lanak, iazko azaroan hasi ziren. Orduetik hona egindako lanaren ondorioa gela txukunak dira, altzari zaharrak aprobetxatuz eta gusto handiz dekoratuz. Arrasateko hotela probatu nahi dutenentzako zazpi mila pezeta inguru ordaindu beharko dute gela bikoitza hartuz gero, eta bost mila baino gehiago bakarrekoa eskatuz gero.

□ Baimena ukatu

Udalak obra-baimena ukatu dio Emakumeen Ospitale Psikiatrikoari; beraz, ezin izango dute ospitale barruan egin asmo zuten obrarik burutu.

□ Erromesaldia Arantzazura

Igandean, hilak 15, aurreko urteetan bezala Arantzazurako erromesaldia izango da. Bertara joateko asmoa dutenak goizeko 9etan Gezaltzan elkartuko dira.

□ Zaparradak

Azkenaldi honetan zaparrada ikaragarriak izan ditugu han eta hemen aspaldiko partez. Baserritarrentzat oraingoan ere ez da giro. Egia ote? Euskadi tropikalarena

□ Gazte-Txartela


15etik 25 urtera bitarteko gazteek goizeko hamaiketatik ordubatera bitartean gazte-txartela ateratzeko aukera izango dute gazteentzako udal-bulegoan. Aurtengoan, aurreko urteetan ez bezala, zerbitzu hori dohain izango da.

ONGI ETORRIA JAIÖBERRIEI

Beraza Guzman, *Ane*. Irailaren 7an.
Fernandez Murillo, *Unai*. 7an.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Juan Luis Etxebarria & Maite Bergaretxe.
Irailaren 7an. Zibilez.
Rafael Azkoaga &
Ma Mercedes Calderon. 7an. Elizaz.



AZTERKETA ETA PROGRAMAZIOA

SOFT VITORIA

INFORMATIKA-IRTENBIDEAK

Enpresa-gestioaren inguruko informatika-irtenbideak

Honako hauentzako irtenbideak: Monopostuak (DOS)

Multipostuak (UNIX)

Sare lokalak (NOVELL)

IRTENBIDE STANDARRAK ETA
NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAZIOA.

Informazio gehiago nahi izanez gero, dei iezaguzu.

Manuel Iradier 9,
01006 GASTEIZ

Tfnoa: 945 - 13 08 64
Faxa: 23 20 21

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea. Arrasate


**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Gripearen aurkako txertoa

Irailaren 16tik urriaren bukaera arte, gripearen aurkako txertaketa kanpaina izango da Arrasaten. Txertoa hartzeko orduan hiru talde bereizten dira: 65 urtetik gorakoak; diabetesa, bihotzeko, birika nahiz giltzurruneko gaixotasunak dauzkatena; eta gainontzeko guztiak.

Aipatutako epean, txertoa hartzeko, edozein herritar hurbildu daiteke anbulategira. Auzoetatik mugitu nahi ez dutenentzat egutegia ere egina dago: irailaren 17an San Andresen, 18an Abaroan, 19an Uribarrin, 20an Santamainan, 23an Musakolan, 24ean Gesalibarren, 25ean Udalan eta Meatzarrekan, 26an Garagartzan eta 27an Bedoñan. Txertaketa goizeko 11etatik 12etara bitartean izango da, auzo bakoitzeko alkatetzan.



Urtarriletik aurrera panteoien salneurria handitu egingo da.

Panteoien salmenta eskas doa


Urtarrilera arte 650.000 PTAn erosteko aukera

Orain artean, oso gutxi izan dira San Kristobalgotik hilerri berri salgai dauden panteoiak erostera ausartu direnak. Jakinaenez, pasa den maiatzaren 31an, udal osoko bilkurak San Kristobalgotik hilerrian panteoiak saltzeko prezioak onartu zituen. Onarpen horren arabera, panteoia erosi nahi duen edonork 650.000 pezeta ordaindu beharko ditu. Panteoiaren ordainketa lau zatitan egin daiteke: laurden bat erosteko konpromezua hartzerakoan, beste bat urte bukaeran, hirugarren laurdena 1992ko

ekainaren leian, eta azkena panteoia eraikitzen denean. Bestalde, panteoia urtarriletik aurrera erosi nahi izanez gero 900.000 pezeta ordaindu beharko dira.

348 panteoi eraikitzeko asmoa dago San Kristobalen, bakoitzean lau hilkuxta sartzeko tokiarekin.

Udalak konfidantza handia zuen zatikako salmenta formulaz, baina orain arte ikusitakoagatik, dozena bat erosle inguru, badirudi arrasatearrek ondorengo bitzita prestatzeko asmo handirik ez dutela.




GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza. ARRASATE Tfnoa: 77 06 07

**Taberna lanetarako,
neska euskalduna
behar da.**

Tfnoa: 945 - 44 50 86





Jabier

D

enbora ez da alferrik pasatzen, ezta harrientzat ere. Arabako Galarretako kanpandorreko harriak, gogorrean gogorrenak izanda ere, ezin izan diote denbora gehiagoan aurre egin sarritan zakarra izaten dakien lur honetako haize finari. Bata bestearekin ordaintzen da; kanpandorreko kanpai txikiei bizitasun eta pozez eragin dien haize berak harrien arteko lotura eten du.


Seguruen, hauster egunez, Galarretan bertan "hauts zara eta hauts bihurtuko zara" esaldia entzungo zuten kanpandorreko harriek. Ez zaie arrazoirik falta hitz horiei. Izan ere, harri handiak zer dira hareaa apurrak baino.



LASA-AGUILERA
aholkularitza

Andra Mari auzunea, 3 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 26

- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-aseguruak
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.a
- Errenta aitopenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak



Igerilekuei buruzko Osakidetzaren arauak direla eta, uztailearen erdialde ingurutik obretan dabilta barruko udal igerilekuetan. Beraz, igerileku horiek itxita egongo dira urriaren lehenengo aste ingururarte. Obra horiek amaitu ondoren kanpoko igerilekuekin hasiko dira.




“La Asunción” ikastetxea San Viator ikastolak erosi du eta orain obretan ari dira. Astelehenean, lanean ari zirela, bertako patioan gerra denborako **bonba bat** aurkitu zuten. Hainbeste salto jasan ondoren, badirudi bonbak ez duela eztanda egiteko gogorik izan. Milagroa ote?



Epelbe

◀ **Iñaki Atxa** eta **Arantza Maraño**
Arantzazun ezkondu ziren joan den maiatzaren 4ean, eta Keniara egin zuten beraien ezkon-bidaia. Zorionak!

Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18



HAURTOKO A


Arrasate Pasealekua, 4
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi-zerbitzua

Izen
PROPIOAK

● **Edurne Mujika**, 24 urteko arrasatearrak lehengo postua lortu du Udal Euskaltegiko oposaketetan. Edurnek magisteritza eta itzulpengintza ikasketak eginak ditu, besteak beste, eta orain arte Arrasate Press-en ari izan dalanean.



● **Amala Altuna**, 30 urteko arrasatearra izan da Euskaltegirako oposaketetan bigarren postua lortu duena. Amaiak ere magisteritza ikasketak ditu, eta euskararen irakaskuntzan esperientzia handikoa da, hainbat lekutan ibili izan bait da lanean.

● **Nerea Beltia**, 24 urteko eibartarrak lortu du hirugarren postua. Nereak Euskal Filologia ikasi du, eta orain arte Eibarko eta Arrasateko Udal Euskaltegietan ibili da euskara irakasten.



Kirola osasungarria dela eta, jende asko inguratzen da **Urkulu** aldera sobran dituen kilotxo horiek kentzeko asmoz. Hala ere, onerako edo txarrerako, iritsi zaigu tentazioa hara ere. Zer egingo diogu ba, on egin, eta gainerakoa hor konpon!

◀ **Edurne Uribesalgok** egindako eskulanen erakusketak ikus daiteke egun hauetan Monterroneko kultur etxean. Eskulan interesgarriak ikusteko aukera ederra; horregatik, asko dira egun hauetan bertatik pasatzen ari direnak.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak

Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

ESTETIKA ZENTRUA
lurrundegia, opariak, jostailuak
Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19




MIKEL
Eskaiola, pintura eta kortzoako apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Argazkia: LASO-ARREGI

Hasi da denboraldia futbolarientzat


Aurtengo denboraldiko bi partidu besterik jokatu ez direnean, Mondra dago sailkapeneko buruan. Arrasatearrek,

orain artean, golak egiteko erraztasun handia erakutsi dute, baita defentsa-lanetan ere. Aurrera begira, baikortasuna nagusi.


**OKIENDO
KIROLAK**

**Gure
merkealdietara
zatoz zu ere!**

Maalako Errabala, 13 Tfnoa: 79 92 76




Jose Luis Etxebarria
33 urte,
Lehendakaria.



Jesus Izagirre
54 urte,
entrenatzailea.



Jesus Martin,
"Txutxin",
26 urte, atezaina.
Gasteiztarra,
Alavesen
jokatutakoa.



Gaizka Unzueta
19 urte,
arrasatearra.
Atezaini jokatzen du
eta iaz igo zen
gazteen taldetik.



Julian Garcia
27 urte, atzelaria.
Aurten etorri da
Eskoriatzako
taldetik.



Josu Maturana
25 urte, atzelaria.
Eskoriatzan jaioa.
Hirugarren
denboraldia
Mondrarekin.



Iñaxio Garro
27 urte, erdilaria.
Atxabaltarra da eta
Mondran dagoene-
koz lau denboraldi
bete ditu.



Igor Gordobil,
20 urte, erdilaria.
Hirugarren denbo-
raldia betetzera
doa lehen
taldearekin.



Iban Aranguren
20 urte. Iaz igo zen
gazteen taldetik.
Erdilaria da.




Jaime Carabias
18 urte. Lehen
denboraldia
nagusien taldean.
Zelai erdian
jokatzen du.



Gerardo Izagirre
24 urte. Arabako
Alegria taldetik
etorri da aurten.
Aurrez Aloñan
jokatu zuen.



**Juan Carlos
Moreno**
22 urte. Alaves,
Mirandes eta
Tarragonan
jokatutakoa.



Unai Idigoras
19 urte,
arrasatearra.
Aurrelaria da eta
aurten igo da
gazteen taldetik.



Alberto Urretxu
20 urte,
arrasatearra.
Atzelaria da eta
iazko denboraldian
gazteen taldetik igo
zen.



Iñaxio Rodriguez
22 urte,
arrasatearra da eta
dagoeneko bere
laugarren denboral-
dia betetzera doa
Mondrarekin.



**Patxi
De La Fuente**
23 urte.
Torrelavegati
etorri da aurtengo
denboraldian.



Xabier Urbina
20 urte. Arrasaten
jaioa. Aurtengoare-
kin laugarren
denboraldia beteko
du lehen taldean.



Luis Dieguez
28, atzelari
jokatzen du,
aurtengo bere
bostgarren denbo-
raldia izango
delarik.

Arrasate



Hotela

Erdikaldean (Portaloian)

Erosoa

Faxa

Gelak baimu, tfno. eta TBaz

Taberna-aretoa



Gozariak

Biteri 1

ARRASATE

Tfnoak: 79 73 22

79 14 16



Iker Balzategi
23 urte, aurrelaria.
Arrasaten jaioa,
bostgarren
denboraldia beteko
du Mondrarekin.



Mikel Molinero
19 urte, erdilaria.
Arrasaten jaioa,
aurten igo da
gazteen taldetik.



Juan Luis Aranburuzabala
26 urte, aurrelaria.
Sanse, Aurrera,
Barakaldo, eta
Alavesen
jokatutakoa.



Angel Camarero
19 urte, erdilana.
Burgoseko gazteen
taldean
jokatutakoa. Lehen
denboraldia
Mondran.




Juan Jose Fernandez
26 urte, Zumarra-
gakoa. Alavesen
jokatutakoa.
Bigarren urtez
Mondran.



Jose Maria Otaduy
30 urte, aurrelaria.
Makina bat taldetan
jokatutakoa, aurten
Mondrara itzuli da.

Mondra, harrobian oinarritzen



Mondrarentzat, aurtengoa eraberritzearen denboraldia izango da. Iaz, entrenatzailearen eraginez, Mondrak Ondarru eta Mutrikutik ekarritako jokalariez osatu zuen taldea. Esperimentuak ez zuen emaitza onik ekarri Arrasateko lehen taldearentzat. Ondorioz, zuzendaritzakoek aldaketaren aldeko apostua egin zuten. Aldaketaren lehen fasea, taldearen alde egindako lana eskertuz, kostaldeko mutilei agurra eman zitzaizenean bukatu zen. Lehen fasearen ondoren, bigarrena hasi zen, kanpotik jokalariai ekarri beharrean etxeko gazteei ateak ireki eta aukerak emanaz.

Aurrendenboraldian egin ziren frogen ondorioz, 91-92 denboraldiari aurre egiteko taldea osatu zen, bertan jokalariai beterano eta gazteak nahastuz. Orain artean, formula ona dela esan daiteke. Jokatu diren partidu ofizialak bi bakarrik izan badira ere, arrasatearrak erraz nagusitu izan dira bietan, joku ona egin dute eta gainera gol aukera ugari. Oraingoaz, sailkapeneko liderrak dira. Noiz arte? Denborak argituko du Mondraren egiazko maila.

Aurrekontua bi milioitan gehitu

Mondrak ia hogeita milioi pezetako aurrekontua dauka 91-92 denboraldirako. Diru-kopuru horretatik, 11.800.000 PTA hirugarren mailako taldeak erabiliko ditu aurtengo denboraldian. Gazte mailako n bi taldeek, kadete mailako beste biek, infantiletako biek eta nesken taldeak aurrekontuko gainontzeko zortzi milioiak eramango dituzte. Beraz, erdia baino gehiago 3. mailako taldearentzat.

Joan zen denboraldiko aurrekontuari begirada bat emanez gero, ia bi milioitan gehitu dela esan daiteke. Duela urtebete, denboraldia hasi zenean, aipatzen zen helburu bakarra mailaz igotzea zen. Aurten, ia garai berdinean, aurrekontu handiagoarekin helburua bera izan beharko luke. Hala ere, Mondrako lehendakariak, "Porru" k, ez du horri buruz ezer entzuterik nahi. "Iaz kategoriaz igo egin behar genuela esaten genuen, eta azkenean denboraldi txarra burutu genuen. Aurten esan dezakedan gauza bakarra zera da, egunero ahal duguna egingo dugula, besterik ez".

Presta zaitetz ikastolarako
gure merkealdietan

Dena kirola egiteko.



LORAMENDI KIROLAK

Zaldibarko Futbitoa berriz martxan

Iazko arrakasta bera espero dute antolatzaileek

Zaldibarko Futbito Txapelketa dela eta, ehun lagun baino gehiago bildu ziren asteartean Monterroneko kultur etxean, duela zazpi urte bertan behera utzi eta iaz berrekin zitzaion txapelketari buruzko xehetasunak jakin nahian. Aurtengo txapelketa antolatzeko bilera, ordu bete inguru luzatu zen eta esan daiteke ia iazkoaren errepikapena izan zela. Antolatzaileek antolaketa-lanetarako laguntza eskatzeaz gain, iazko txapelketaren balorazio txiki bat egin zuten.

Jakina denez, iaz hirurogei taldek jokatu zuten Zaldibarko futbito txapelketan, aurtan antolatzaileek antzerako jende kopurua espero dutelarik. Halakorik gertatuko balitz, hau da, txapelketak iazko arrakasta bera izatea, Arrasatetik kanpoko talderikez lukete onartuko.

Txapelketa zuzenduko duen arautegiari dagokionez, esan behar ez duela diferentzia handirik iazkoarekin konparatuz gero. Aipagarriena zera litzateke: Iturripeko inaugurapena dela eta, seguruen kiroldegi berria aprobetxatuko dela txapelke-



Antolatzaileek Monterronen eman zituzten txapelketaren buruzko xehetasunen berri




tako partidu batzuk han jokatzeke. Txapelketa honetan parte hartzeke derrigorezkoa izango da gutxienez hamasei urte beteta edukitzea, eta talde bakoitzak gutxienez hamabi jokalaria izan beharko ditu. Inskripzioa egiteko orduan, talde bakoitzak hamar mila pezeta ordaindu beharko ditu izena emategatik eta beste bost mila badaezpada ere. Hamar mila pezetak, azkenean talde eta

jokalari onenei sariak emateko izango dira; bost mila pezetok, berriz, badaezpadaoak dira, talde bakoitzak txapelketan zehar jasotako isunak ordaintzeko erabilizekoak.

Ohiturari jarraituz, aurtan ere, Zaldibarko Futbito Txapelketari urriaren 5ean emango zaio hasiera, Maritxu Kajorein biharamunean. Batek baino gehiagok, betaurrekoen beharra ere izango du baloia ikusi ahal izateko.

Iazko antzera, txapelketaren bukaera maiatz inguruan izango da, futbolaren festan seguruen.

Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Renee izatez Zuberoako Barkoxe herrikoa bada ere, hamalau urteotan Arrasaten bizi da. Une honetan bertoko batekin ezkonduko dago, eta Bedoña auzoan bizi da.

Zer egiten du zuberotar batek Arrasaten?

Benoa, Arrasatera bertako kooperatibak ikustera bakarrik etorri nintzen, eta orain hemen nago. Ni perito agromoa naiz, eta Zuberoan altzari-kooperatiba bat sortzeko asmoa izan zenean Arrasatera bidali ninduten bertako kooperatibak ikusi eta Zuberoara informazioa eramateko. Hemen bizi nintzen bitartean Esteban Arana ezagutu eta berarekin ezkondu nintzen. Orain Bedoñan etxetxo bat egin dugu, eta bertan bizi gara.

Barkoxetik Arrasatera etortzeak zure bizitza erabat aldatuko zuen, ez?

Bai horixe. Etorri nintzenean gogoratzen dut zailtasun handiak nituela bertako euskara ulertzeko, eta gaztelera ere ez nekien ia. Gainera Erguinen bizi nintzen, eta ez nuen oso gustoko. Nire asmoa eta gogoia lehenbailehen Zuberoara itzultzea zen. Baina gero gauzak aldatu egin ziren. Orain oso gustora bizi naiz Arrasaten. Zuberoaz asko gogoratzen naiz, baina bizitzeko nahiago du Arrasate Zuberoa baino.

Nola ikusten duzu Zuberoa Arrasatetik?

Benoa, egia esan behar badut, oso tristea da gaur egungo Zuberoako egoera. Euskara galtzen ari da, zaharrek bakarrik egiten dute. Gertzen diren euskaldunak eta abertzaleak oso marjinauak daude, baztertuak eta gaizki ikusiak. Gazte jendeak Fran-

Rene Harbustan

Arrasaten bizi den zuberotarra



tziaira alde egin du lan bila, eta ondorioz, Zuberoa erdi hutsik geratu da. Bertako jendeak baserrian egiten du lan. Baserriak dira, beraz, Zuberoako enpresak, baina ekonomi-arazo ikaragarriak ditugu.

Nola ikusten duzue Euskal Herria Zuberoatik?

Hasteko esan behar da, Zuberoa oso isolatua dagoela gainerako euskal probintzietatik. Komunikabideei dagokienez adibidez, guk ez dugu ez Euskal Telebistatik, ez egunkaririk, ez Euskal Irratirik hartzen. Arlo

horretan, eta Administrazio-ikuspegitik harreman estuagoak ditugu bearneseekin, behenafar eta lapurtarrekin baino. Zuberoa oso frantses-tuta dago, eta bertakoek Hego Euskal Herriari buruz duten ikuspegia nahiko txarra da. Informazio falta nabaria da, jendeak ez du Hegoaldea ezagutzen, eta hemen denak metrailetakin gabiltzala uste dute.

Nola ikusten duzu "manexak" eta "euskaldunen" auzi hori?

Benoa, zuberotarrak nahiko bereziak garela esan

behar da. Zuberotar euskaldun gehienentzat beraiek dira benetako euskaldunak, dantzari eta kantari trebeenak. Behenafar eta lapurtarrei, berriz, "manexak" deitzen diete, eta hegoaldekoei "espainolak". Alde horretatik nahiko egoztristak gara, eta ez dugu nahi inork gu imitatzetik. Adibidez, Zuberoan Benito Lertxundi oso gaizki ikusia da, gu imitatzen saiatzen delako. Behin, kantatzerara etorri zenean jendeak txistuka hartu zuen.

Aste honetan Arrasatera pastorala dator. Zer esan diezagukezu pastoralarri buruz?

Pastorala Zuberoako ezaugarri kultural inportanteenetariko bat da. Normalean urtero herri batek hartzen du pastorala egiteko ardura, aurten bi egin badira ere, eta bertan, ia herri osoak parte hartzen du. Zoragarria da pastoralak herrian sortzen duen giroa. Pastorala dela eta, bestela bereiztuta egoten den jendea elkartu egiten da. Sei hilabetetan zehar, jendea larunbatero elkartzen da pastorala entsaiatzera. Entsaioen aitzakian larunbatero afariak antolatzen dira, eta jendeak oso ondo pasatzen du. Egin beharreko lana ikaragarria da, baina gustora egiten denez guk ez dugu lantzat hartzen.

Parte hartu al duzu inoiz pastoralean batean?

Bai, lehenengo aldiz orain hogeitau urte inguru egin zen "Etxahun" pastoralean hartu nuen parte; eta bigarrenean, "Basaburu" pastoralean, orain dela hamabi urte. Bigarren pastoral hori neskek bakarrik egin genuen, eta hori oso bitxia izan zen, ordurarte gizona bakarrik hartzen bait zuten parte pastoraletan (emakume papera egin behar zutenean emakume jantzirik).

“Zuberoaz asko gogoratzen naiz, baina bizitzeko nahiago dut Arrasate”

Mankomunitatea zuzendaritza berriaren zain

Hilaren 19an, Deba Garaiko Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen osaketa egingo da. Ordura arte, ezingo da jakin Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Gatzaga eta Oñatik osatzen duten elkarteak aurrerantzean norantz joko duen.

Deba Garaiko Udal Elkartean politikoek agintzen dute, eta baliteke 19an kargua hartzen dutenek, azken urteetan Udal Elkarteak egindakoekin ados

ez egotea. Baliteke aurkakoa gertatzea ere, eta ondorengo urteetan Udal Elkarteazken urteetako bidetik joatea. Etorkizuna iragartzerik ez dago. Beraz, Deba Garaiko Udal Elkarteaz zer den eta bertan bizi garenoi eskaintzen digunaren azalpenarekin konformatu behar.

Sorrera

Deba Garaiko Udal Elkarteaz 1976. urtean eratu zen. Bergara, Antzuola, Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Aramaioko udalek bat egin zuten zaborra batu eta erreko zuen zerbitzua antolatzeko. Gerora,


Aramaiok, Araba izateagatik, Udal Elkarteaz utzi zuen. Garaiz hartan, Maltzaga - Armiñon autopistaren proiektua iragarri zen. Proiektu haren aurka egiteko eta antzerako arazoan aurrean irtenbideak aurkitzeko, zortzi udalek Deba Garaiko Mankomunitateaz osatu zuten.

Eskualdeko herriak elkarterazi arazi zituen zaborren bilketa eta erreketen proiektuari, ondoren beste batzuk etorri zaizkio gaur eguneko zerbitzu-sareaz osatu arte. Izan ere, Deba Garaiko Udal Elkarteaz zerbitzu-sare bat besterik ez da. Zerbitzu bakoitzak bere aurrekontua du eta bere erara funtzionatzen du, herri bakoitza nahi duen zerbitzuez baliatzen da. Udal bakoitzak, erabiltzen dituen zerbitzuak ordaintzen ditu bakarrik, herri horretan bizi den jende kopuruaren arabera.

Zerbitzu ugari

Udal Elkartean, ondoko koadroan ikus daitekeenez, bost zerbitzu-motaz eskaintzen dira: Zerbitzu orokorrak, Hirigintza/Lurralde-azterketa, Ingurugiroa, Hiltegia, Enplegu eta Gaikuntza.

UDAL-ELKARTEKO ZERBITZU EZBERDINAK



rralde azterketak, Ingurugiro zerbitzua, Hiltegia, eta Enplegua eta Gaikuntza zerbitzua. Guzti horien gainetik, koordinazio-lanetan, gerentzia dago.

Zerbitzu orokorrak Mankomunitateak dituen tresnak dira, gainontzeko zerbitzuen aurrekontu eta tramiteak aurrera eramaten dituztenak. Beraz, eskualdeko udalei baino, mesede gehiago egiten diote Udal Elkarteari. Aipatzekoa da, 1988-89 urteetan, zerbitzu honen barruan Deba Garaiko Mendi-Nekazaritza Elkarteak sortu zela.

Hirigintza/Lurralde Azterketa Zerbitzuaren helburua, udal bakoitzak planteia ditzakeen proiektuen garapena ikertzea baino gehiago, eskualdean eragina izan dezaketenez proiektuez arduratzea da. Hala nola, orain departamendu hau abiada handiko tren, saihe-sbide berriak eta arau subsidiarioak aztertzen ari da. Suradesa, eraikuntza zaharrak eraberritzeko enpresa ere, hemen koka daiteke.

Ingurugiro Zerbitzuaren barruan, AKEIko erraustegi, traste handien hileroko bil-keta, beirarena, hondakinen gordailu alternatiboa, eta Epeleko zabortegia egongo lirateke besteak beste. Epeleko zabortegiari buruz, lehen fasea urte amaierarako seguruen bukatuta izango dela esan daiteke. Ordutik aurrera, erabiltzen hasi ahal izango da.



Hondakin solidoak jasotzea ere Mankomunitatearen zerbitzua da.

Aurrera begira, Deba Garaiko Udal Elkartearen gerentteak, German Berezibarrek, AKEIko erraustegi alternatiba bat aurkitzeko beharra azpimarratzen zuen, "zaharkitua bait dago".

Izugarrizko martxa darman zerbitzua, ezin du gehiago produzitu eta, Zubillagako hiltegia da. Hiltegi honen lehen urteetan diru-galerak ematen baziren ere, azken aldean irabaziak eman

ditu eta aurrerantzean, inolako aldaketa barik, era berean segitzeko asmoa dago.

Enplegua eta Gaikuntza, Deba Garaiko Udal Elkarteak antolatu duen azken zerbitzua da, "oraindik zeharo finkatu gabekoa —German Berezibarrek zioenez— eta lana emango diguna". Zerbitzuaren helburuak, eskolan porrot egindakoak berreskuratu, langabetuak moztatu eta prestatu, eta beren


enpresa txiki propioak eratu ditzaten ikasle kualifikatuak gaitzea izango lirateke. Aipatutako jendeari, Udal Elkarteak, hiru motatako irteerak eskaintzen dizkio: Lantegi-Eskolak, Lanbide-Hastapeneko ikastaroak, eta Lanerako Prestakuntzarako ikastaroak.

Aurrekoak lirateke Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuak. Hala ere, Udal Elkarteak burutu dituen ekimenak gehiago dira: Gipuzkoako Ur-Hornikuntza eta Saneamendurako Kontsurtzioan parte hartzea, Ingurugiroari buruzko ihardunaldiak antolatzea, minusbaliatuentzako zerbitzuak ezartzea, eskualdeko udal liburutegiak dinamizatzeko plana bultzatzea, eta euskara sustatzeko neurriak hartzea.

Diru-kontuak

Azken urteetan gehiketa handia eman da Mankomunitateko zerbitzuetan.

AURREKONTUAK MILIOTAN



Bata bestearekin doanez, zerbitzuen gehiketak aurrekontuena ekarri du.

"Deba Garaiko Udal Elkarteak zerbitzu sare bat besterik ez da"

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak


Olarte kalea, 30 Tfnoa: ARRASATE 79 89 89

Besaideko Eguna 29ra atzeratu

Astean zehar burutuko da ekintza-egitarau luzea

Ohiturarekin etena suposatuko du aurten Besaideko egunak, betiko moduan irailaren hirugarren igandean ospatu beharrean laugarrenean burutuko da eta. Atzerapenaren errua, Besaideko eskulturaren inaugurazioari leporatu behar zaio. Dena dela, konpentsazio gisa, inaugurazio horren inguruan ekitaldi ugari antolatu da; beraz, aurten Besaideko egunaren inguruan ekintza asko aurriztatu dira.

Inaugurazio-eguna 29an bada ere, ekintzei 25ean emango zaie hasiera. Aipatutako egun honetan, arratsaldeko 7etan, Aramaion "Sagarmatha 90" diapositiba emanaldia egingo da. Emanaldian Ramon Garate eta Pako Iriarte izango dira, espedizio horretako partaideak, jendea behar dituen argitasunak emateko.



Urtero bezala, jende ugari igoko ditu Besaidarako maldak Besaide egunean.

Aramaiotik, Elorriora. Hilaren 26an, Casimiro Bengoetxearen eskutik mendiko eskiari buruzko filmea ikusteko aukera izango da. Hilaren 27an berriz, Arrasate izango da filmea ikusteko

aukeratutako tokia. Filmea, euskal mendizaletasunaren historiari buruzkoa, eta aurkezlea Juanjo San Sebastian.

Larunbatean, hilak 28, ekintzei beste bultzada bat emango zaie, instituzioak eta jai-giroko ekintzak nahastuko bait dira. Hala izanik, eguerdiko 12.30etan Udaletxean proiektuaren inaugurapenaren ekintza izango da. Hori bukatu eta gero, Lore Gazteak taldekoek ohorezko aurrekua egingo dute, Goiko Balu abesbatzaren ihardunaldia izango da eta, bukatzeko, proiektuaren aurkezpena. Udaletxea utzi eta Monterronen, eguerdiko 1.30etan, mendi-eskultura erausketaren hasiera izango da.

Ohi denez, igandean egin behar guztiak Besaideko mendi-gailurrean burutuko dira. Egunari hasiera emateko, txalaparta hotsak entzun ahal izango dira goizeko 10.30etatik aurrera. Ordu erdi beranduago Aramaio, Arrasate, Atxondo eta Elorrioko abesbatzen partaideak kantatutako Meza Nagusia izango da. Meza bukatu eta gero, Euskal Mendizale Federakundeko Lehendakariak agurra egingo die Besaiden bildutakoiei. Antolatutako ekintzei bukaera emateko, eguerdiko hamabietan Atxondo, Elorrio, Aramaio, Arrasate eta Lizarrako dantza taldeen saioak ikusteko aukera izango da.



Atzerapenaren arrazoiak eskulturaren inaugurapena da

MARTINEZ
aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK
JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04




JONE

LASAGABASTER

Futbolean
serio

PODIUMA



Lau urte pasatu dira Jone Lasagabaster, Rosi Katangak egindako deialdi baten ondoren, futbolean jokatzeko hasi zela. "Futbola beti izan dut gustoko iharduera, baita beste kirol asko ere. Rosi Katangak emakumeen futbol-taldea egiteko deialdia egin zuenean, ez nuen beldur pentsatu. Izena eman nuen, proga bat egin eta taldea osatu genuen". Lau urte ez dira alferrik pasatzen, eta orduan hona gaizkak asko aldatu direla dio Jonek. "Hasieran ia ez genekien jokatzeko. Orain ordea, bai; baloia hanketan dugunean badakigu zer egin eta elkarrekin nola konpondu. Duela lau urte baino maila askoz ere hobea daukagu".

Hogei urteko neska honen taldean gaizkak asko aldatu badira, berari gehiago aldatu zaizkiola esan behar. Izan ere, futbolean jokatzeko hasi zenean aurrelari jokatzeko zuten, eta orain taldeko atezaina da; hau da, golak egiteko golak jaso edo galeratzea pasatu da. "Beno, bai. Hasieran zelaiaren aurrealdean jokatzeko zuten, ondo samar gainera. Taldean atezain barik gelditu ginen eta ni hasi nintzen toki horretan jolasteko. Atezain izateko txiki egia nintzela esaten zidaten,

baina burugorria naizenez oraindik inork ez du lortu niri postua kentzerik". Txikitxo da bai Jone, 1,56 metro neurtzen ditu. Behar bada, altuera-falta horregatik atezain postua estrenatu zuenean izugarriko jipoia hartu zuen. "Buf! Hamabost gol sartu zizkidaten. Baina, tira! Maritxu Kajoiko bihar-muna zen, eta gainera Oiartzun taldea geneukan aurrean, hemengo onena".

Jonek, Arrasaten etorkizun ona iragartzen dio emakumezkoen futbolari, gaizkak serio hartuz gero behintzat. "Begira, ni lau urtetan banabil eta oraindik luzerako dudala uste dut. Bada besterik, aurretik entrenatzailea joan zaigu, bere ustez zekien guztia irakatsi digulako jadanik. Mondra taldearen egituraren ere sartuta gaude. Horrek zerbait esan nahi du, dudu barik. Ikusleak bakarrik axabaltarren aurka jokatzeko dugunean etortzen dira eta".

◆ Centraljet aurrendenboraldian

Arrasateko saskibaloiko lehen taldeak, iazko denboraldiari bukaera eman zion bezala eman dio hasiera aurrengoari; hau da, garaipenarekin. Arrasatearrek Iparraldeko Denek Bat taldea izan zuten aurrean, Baiona ondoko Urcuit herriskin jokatuako partiduan. Arauzko denbora jokatu eta gero, markagailuak 68 eta 65eko emaitza erakutsi zuten, arrasatearren alde, noski.

Iparraldeko taldeak ez du Centraljet Euskal Air taldearen mailarik, baina denboraldia larunbatean hasiko zaionez, entrenamenduetan askoz ere aurreratuago dabil. Behar bada horregatik, talde bat eta bestearen artean dagoen diferentzia ez zen gehiegi nabarmendu. Arrasatearrentzat lehen partidua zenez, entrenatzaileak, mutilak nola zeuden ikusteko, aldaketa ugari egin zituen. Esperientzia interesgarritzat jo daiteke partidua, jende berriarekin harremanak egiteko balio izan zuten eta.



◆ Garro lesionaturik

Garaipen guztiek beren ordaina dutela esan ohi da. Mondra taldearen kasuan horrela da behintzat. Joan zen asteburuan jokatuako partiduan Inaxio Garro, lesionatuta, erretiratu egin zen. Lesioaren ondorioz, oso posible litzaiteke Garrorentzat denboraldi-erdia baino gehiago bukatua izatea. Partidu berean "Txosa" izugarriko kolpea hartu zuen. Zorionez, Mondrako goleatzailearen kolpea hutsean gelditu zen.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12 ARETXABALETA

Altzariak
Diseinua
ApainketaM
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

Gripearen aurkako txertoa

Udazkena laster izango dugu geure artean; eta iraila izaten da hilik aproposena gripearen aurkako txertoa jartzeko, immunitateak 2-4 aste behar bait ditu garatzeko.

Txertaketa honek, jakina denez, garantia osorik ez du ematen gaitz hau gure arte-tik baztertzeko, txertoaren eraginkortasuna aldakorra bait da eta pertsona batzuei primeran etortzen zaien bitartean, beste batzuei ezer gutxi egiten die. Dena den, populazio osoa kontuan hartuz gero, ez dago dudarik onuragarria dela batez ere arrisku handiko giza talde-

entzat (zaharrak, bronkitikoak, kardiopatak...)

Horretaz aparte, oso gutxi egin daiteke gripearen aurka, agertu ondoren ez bait dago tratamendu eraginkor espezifikorik, eta egin genezakeen gauza bakarra sintomak gutxitzea besterik ez da, baina bolada baterako jota uzten gaitu kasu askotan.

Marranta edo katarroa

Zorionez, amas zoldura edo infekzio guztiak ez dira gripearen jatorrikoak; gehienetan izaten dugun afekzioa katarro edo hoztura arrunta izaten da: gaitz arina, beronen ezaugarri nagusia mukijarioa izaten da, eta beste



konplikaziorik gabe, 5-7 egunen buruan pasatzen da. Hau ere birus batek eragina da; sarri jasaten dugu, eta gerta liteke urtean zehar behin baino gehiagotan jasan behar izatea.

Gripea eta katarroaz aparte, badira beste arnas-zoldura batzuk, birusak eraginak hauek ere; adibidez bronkitisak, alboreangoa edo pulmonia, etab. ekartzen di-


tuztenak, eta hauek larriak izatera irits daitezke.

Aholkuak

Afekzio guzti hauetan, sintomak gutxitzeko *botikak hartzea* komeni da; *hidratazio egokia* ere derrigorrezkoa dugu: ura, fruta-urak (laranjarena, batez ere), etab. edatea komeni da; eta kongestioaren aurka, sudurtzuloak oso itxita daudenean, mentol, eukaliptus eta horrelakoekin egindako *lurrinak* ederki etortzen dira.

Baina, beti bezala, hobe neurriak aurrez hartzea eta oraintxe da txertatzeko garaia.

Eukeni & Arantxa



SASIAIN sport

Errepide eta
mendiko bizikletak

**AUKERA
HANDIA**

Deba Garaiko
bizikleta-denda

Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63
ARETXABALETA




Batuta

Fertxu Aranburu

Fertxu mutil kozkorra zen Arrasateko Parrokiako koruan tiple sartu zenean. Sasoi hartan Don Dionisio organu-joleak bultzada handia eman zion, eta neurri handi batean berari esker sartu zen mundu horretan. Gaztaro osoa kantuan igaro bazuen ere, gerra denboran musika alde batera utzi eta Plentzia aldean ibili behar izan zuen.

Gerrako etenaldiaren ondoren, urek bere bidea hartu zuten, eta Fertxu ere Arrasatera itzuli zen. Bertan, Maestria industrialari amaitu eta Zerrajeran hasi zen lanean. Sasoi hartan, Arrasaten izugarritzko musika giroa zegoen. Esan besterik ez dago herri-mailan hainbat zarzuela egin zirela, besteak beste, "Catusca", "La Tabernera del Puerto", "El Caserío", "Viento Sur", "Los Gavilanes" eta "Mirentxu". Zarzuela hauetan, Fertxu antolatzailea izateaz gain, tenore-bakarlaria ere izan zen, eta Jesus Gudirirekin lanean aritzeko aukera izan zuen. Bere ahots ederra eta kanturako trebetasunari esker, Arrasatek kanpo hainbat abesbatzatan ibili izan da Fertxu, hala nola,



"Bergarako Orfeoian", "Donostiako Orfeoian", "Iruñeako Orfeoian" eta "Bilboko Koralean". Normalean bakarlari aritzen zen, eta musika-ikasketarik ez zuenez, Arzamendik laguntza handia eskaintzen zion.

Zerrajerako lana utzi zuenean bere dendan aritu zen. Ondoren, 1960. urtean Udaletxeko zinegotzi sartu zen, eta azkenik 1972.ean Lan Kide Aurrezkian ibili izan da. Hirurogehi urterekin jubilatzen zen, eta lau urte hauetan bere denbora librean "Iruñeako Orfeoia" ri eskaini dio batipat. Goikobalu sortu aurretik Arrasateko "Danok" abesbatzatan ibili zen, eta Goikobaluren sorreran ere lan handia egin zuen esan behar.

Hainbeste urtetan kantari aritu ondoren isil-isilik joan zaigu Fertxu, agurrik esan gabe, baina bere altxorrikeria ederrena gure oroimenean utziz. Mila esker guztiagatik.

"Hainbeste urtetan kantari ibili ondoren, isil-isilik joan zaigu Fertxu"

Txio txioak

■ Arrasate-Musikalen inoiz baino aukera gehiago

Arrasate Musikal erdi-mailako Kontserbategi bihurtu dela eta, aurten-go matrikulazioak aurreko urteetakoek baino aukera zabalagoa eskaintzen du. Aurten, beraz, erdi-mailako ikasgai osagarriak Donostian egin beharrean, Arrasaten egin ahal izango dituzte bertako ikasleek. Guzti horrek, zalantzarik gabe, aukera izugarria eskaintzen die arrasatear eta inguruko herrietako ikasleei musika-ikasketekin aurrera jarraitzeko. Aurten sartutako aukera berriak honako hauek dira: Artearen historia, Musikaren historia, Estetika, Repentizazioa eta Transporte, Instrumentu-Taldea, eta Musika-Formak. Guztira hirurogeitabost lagun izan dira ikasgai horietan apuntatu direnak, beraz, ikasleen aldetik erantzun ona izan dela aipatu behar. Bukatzeko, esan behar da, ikasgai hauek bertako irakasleek emango dituztela, nahiz eta Donostiatik irakaskereren bat ekartzekotan dabilzan.



■ Eskoriatzako Gorosarri abesbatzaren arrakasta handia Gatzagan

Joan den igandean Eskoriatzako Gorosarri abesbatzak arrakasta handia lortu zuen Gatzagako elizan eguerdiko hamabietan egindako meza nagusian.

KIDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5. Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

"EDERTU"

ileapaindegia



San Andres auzoa. 79 04 28

Haur eta gazte literatura Irakurgida


(8-16 urtekoentzat liburuak)

Hemen datorkizu berriz ere, irakurle, beste era guztietako mila orri (in-) (de-) formatiboren artean erdi galduta, **Irakurgida 1990**. Ez dezazula zakarrontzira bota.

Norbaitek, beroni esker, Poloniatik etorritako Anna neskaxaren misterioa somatuko du eta urrutiko mila ametsez bere bizitza beteko; besteren batek, ordea, eta "Beltza! Beltza!" liburuaz ari gara, bere bederatzigarren pisuko etxebizitza ziztrina arrain librez betetako itsaso inmentso bihurtuko du.

Liburuaren indarra, fikzioaren benetakotasuna.

Ez dezazula zakarrontzira bota, irakurle, **Irakurgida 1990** hau. Zuri ere, zure ikasleei ere, suerta dakizueke, beroni esker, guri —oinezko irakurle apalak geu ere— suertatu zaigun lilura eta gozamena".



Honela dio Eskoriatzako Irakasle Eskolako Irakurketa-Mintegiak (8-16 urtekoentzat liburuak) argitaratu duen Irakurgidak bere sarrean, urtean zehar hamabostero bildu eta 1990ean euskaraz argitaratuak izan ziren literatur liburu gehienak irakurri ondoren.

Gidaren bat jasotzea edo gaiari buruzko argitasunen bat interesatzen bazaizue, jar zaitezte harremanetan gurekin (Irakasle Eskolako Haur-Liburu Mintegia. Tfnoa: 79 04 40) edo Arrasateko Bibliotekako arduradunekin.

Klarion Taldea

Eskoriatzako IRAKASLE ESKOLAK , LAN-SAILaren babespean, ondorengo ikastaroa antolatu du:

"BIDEOAREN PRODUKZIO ETA HUSTIRAPENA FORMAKUNTZA ALORREAN"

- **Hartzaileak:** Ikusentzungailuen arloan lehendik trebaturiko 15 langabetu.
- **Iraupena:** 600 ordu. Urriak 14tik otsailak 28ra, egun osoz.
- **Aurre-inskripzioa:** Eskoriatzako Irakasle Eskolan, irailak 27ra arte.
- **Informazioa:** 943-79 04 40 telefonora deituz emango da.


EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA DPTO. DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL



IRAKASLE ESKOLA

Iraileko ira arteko bideetatik

Abuztua joanda gero ere, egon garen lekutik etxera itzuli-takoan, gure mendiei kuku bat egiteko aukera izan dugu. Itzuli honetan, utzi genituen lekuan aurkitu ditugula egia bada, ez da hainbestekoa utzi genituen bezalaxe aurkitu ditugula. Ez! Mendia tximurtuta eta hondatuago topatu dugu. Sikuteak, jadanik, hamaikatxo iturri lehortu dizkigu, zenbait errekatxok eta hain txikiak ez direnek ere, potea betetzeko lain urik ez dakarte. Badirudi, sikute gorri honen ondorioak pago eta zenbait zuhaitzetara ere heldu direla, badaude eta, bazterretan, urzagatik hosto barik geratu



Anbotoko ikuspegia Besaideko heritik

direnak. Eta ez dira gutxi. Beraz, mendirako asmoarekin ari bazara, badakizu pentsatutako hainbat iturritan akaso urik topatuko ez duzuna, argi ibili.

Egin egunera oinez

Aurtengoan ere animatu dira arrasatear batzuk men-

diz mendi Altsasuraino oinez joateko. Asko dira aukeratu litezkeen ibilbideak baina normalena eta eragozpen gutxien duena Arantzazun hasten da; handik Urbixara eta ondoren San Adrianera; Mikeleteen txabolatik zehar Otzaurtera jaitsi eta bidez errepede nazionaleraino hel-


duko gara, bide honetara heldu eta gero trenbidera sartu eta ekialderantz jo; puntuko ikusiko ditugu Altsasuko lehenengo etxeak.

Besaideko irteerak irailerako

Ez ahaztu, irailaren 22rako baduzu beste mendi aukera bat Besaideren eskutik. Egun hori, domeka, kostaldean ematea pentsatu dute eta Deba-Zumaia zeharkaldia egitea dute asmozat.

Irailaren 29an ostera, egun handia izango da Euskal Herriko hiru probintzia zatitzen dituen muga batean, Besaiden; gogoan izan animazio eta giro bikaina izango dela egun horretan. Ikusiarte!!


Hankamotz



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgariak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnok: 79-24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Aste gazte

"Gazteak ezjakinez,
zaharrak ezinez,
egitekoak gaizkinez"
Esaera zaharra

Ikastaroak

• *Baratzagintza berotegietan 9. ikastaroa*, Zabalegi eskolan, barnetegi erregimenean. 18 urte beteak dituzten neska-mutilentzat. Ikastaro praktikoa. Iraupena: urritik maiatzera arte. Matrikula: ikasketak doan, bakarrik ordaintzen da ostatua, hileko 4.000 PTA. Izena emateko epea: irailak 20.

• *Astialdiko begirale eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak*: Hezkide (Donostia) eta Accion 21 (Gasteiz) eskoletan matrikula-epea zabalik dago irailaren 22ra arte. Honez gain, bietan antolatuko dira ikastaro monografikoak urtean zehar.



Bekak

• *Ondare historikoaren alorrean ikerketa-lanak egiteko bekak*. Gaia: Ondare Kulturalari buruzko agiri-baltza bat sortzea. Eskatzaileak: Geografi eta Historiako lizentziatuak, Arte Historia edo Arkeologiari buruzko ezagutzarekin, eta Delineazio arloan bigarren mailako LHko tituludunak. Epea: irailak 18. EHAA 158, 91-08-07.

• *91-92 ikasturterako Lankidetzako bekak*. Eskatzaileak: Unibertsitate fakultateko edo goi-mailako teknika eskoletako azken bi ikasturteetako ikasleak edo unibertsitate eskoletako azken ikasturtekoak. Epea: irailak 30. EHAA 163.

• *Konsumorako hezkuntza alorrean ikerketa-beka bat*. Eskatzaileak: gaiarekin zerikusia duten goi edo erdi-mailako unibertsitate titulua dutenak. Dirulaguntza: 2.000.000 PTA. Epea: irailak 30. EHAA 150, 91-07-24.

• *Kontsumo-alorreko gaikuntza eta ikerketarako hamar lankidetzako beka*. Eskatzaileak: zenbait ikasketatan lizentziatuak: Soziologia/Politika Zientziak, Zuzenbidea, Informazio Zientziak, Biologia, Dokumentazioa... Dirulaguntza: 1.000.000 PTA. Epea: irailak 30. EHAA 150m 91-07-24.

• *91-92 ikasturtean unibertsitate-mailako ikasketak burutzeko bekak eta dirulaguntzak*. Epea: urriak 15. Informazio gehiago: EHAA 163, 91-08-14.

Lehiaketak

• *"Gazteen grinak" II. Argazki Lehiaketa*. Arrasateko Udalak antolatua. 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendua. Zuribeltz nahiz koloretan. Sariak; 60.000, 40.000, 30.000 eta 20.000 PTAko akzesita. Lanak aurkezteko epea: irailaren 27a.

• *Arte plastikoaren 1991 "Gure Arte" sariak*. Modalitateak: eskultura, pintura, grabatu eta argazkia. Materiala, gaia eta kontzeptu plastikoak aukeratzeko askatasun osoa. Sariak: modalitate bakoitzeko 3 sari eta hainbat akzesit. Lanak aurkezteko epea: irailak 30.

• *"Sesamo" XXXVI. Nobela-lehiaketa*. Gai libre. Gaztelaraz. Sari bakarra: 500.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: irailak 30.

Jaialdiak

• *39. Nazioarteko zinemaldia, Donostia*. Irailaren 19tik 28ra.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



Parques
y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

ETXEBIZITZAK

- Gela bat bi oherekin alokatzen da. Dei egin 79 07 73 tfnora.
- Hiru irakaslek etxebizitza alokatu behar dugu. Tfnoa: 88 28 63.
- Andre euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Goizez 8etatik 1ak arte. Tfnoa: 79 50 41.
- Erguinen etxebizitza salgai. Amueblatua, gas naturala, 3 logela, egongela, sukalde, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrekoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- Lokala alokatuko nuke ofizina bezala erabiltzeko. Tfnoa: 79 93 06.
- Gela alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi neska behar dira pisua osatzeko Bilbon, (Logela konpartitua). Pisua handia eta polita da. Pertsona bakoitzak 15.000 PTA. Tfnoak: 79 24 08 Eva, eta 79 36 54 Maitane.
- Konpartitutako pisu alokatuan logelarik libre badaukazu, dei egin 77 06 90 tfnora.

- Klase partikularrak ematen dira (Fisika, Kimika eta Matematika). Dei egin 77 13 95 tfnora.
- Andre euskalduna etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Klase partikularrak edo taldetan ematen dira (Españiar hizkuntza, literatura, latin eta ingelesa) Tfnoa: 79 10 61. Goio.
- Euskara, Ingelesa eta OHoko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 90 08.
- Neska euskalduna etxeko lanak eta haurrak zaintzeko prest. Zazpi urteko esperientzia Donostiako Udal haurtzaindegian. Dei egin 77 02 90.
- Aretxabaletako "Josteko" Oihaldendak esperientzia duen jostuna behar du. Tfnoa: 79 80 90.
- Armoniak klaseak ematen dira. 1. 2. 3. eta 4. kurtsoak. Talde txikiak 91-92 ikasturtea. Tfnoa: 79 27 88. Miriam.
- Edozein lan egiteko prest nago. Tfnoa: 79 61 05.
- Emakumea behar da umea zaindu eta lanak egiteko. Tfnoa: 79 13 04 eta 78 23 93.
- Neska edo emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 21 60.

- Iozkitegiak erakusteko bitrina, Salbat lahea estrenatu barik eta jogurtak eta esnea erakusteko bitrina salgai oso prezio interesantean. Dei egin 79 23 58 eta 77 00 91 Tfnoetara. Rosi.
- Lau edo bost lagunentzako kanping-denda salgai, aluminiozko tuboekin. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- Seat 127a salgai, SS-M, errebisioa pasatua, estra batzuk ere baditu. 100.000 PTA. Tfnoa: 76 61 05.
- Paseoko bizikleta bi salgai ditut 15.000 PTA. tan bakoitza. Dei egin 79 99 82 tfnora. arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Ur-berogailua egoera onean salgai. Tfnoa: 79 59 72.
- Adria TY GRA karabana (4,10 m.) salgai. Lau pertsonarentzako tokia, hozkailua etab. Garajea edukitakoa. Tfnoa: 79 93 06.
- Ia berria den Atari 2600 kotsola bidea salgai, 160 joku ditu. Tfnoa: 78 31 51.

DENETARIK

- Txakur txiki bat galdu dugu. Marroia da. Aurkitu baduzu dei egin mesedez 79 14 29 tfnora. Ander.
- Nortasun-Agria galdu dut. Manuel Ignacio Rebollo-ren izenean dago. Aurkitzen baduzu, deitu Arrasate Pressera.
- Txakurkumea gura baduzu deitu 79 82 81 tfnora. eta erregalatu egingo dizugu.
- Norbaitek, larunbatak 13, arratsaldean, deitu zidan galdu duen urrezko eskumuturrekoagatik eta ez nengoen etxean. Mesedez dei egin berriro eta eskerrik asko (eskumuturrekoak harri urdin batzuk zeuzkan). Tfnoa: 79 28 80. Axen.
- Zorionak Kris, Arantxi, Felix eta Iñaki! Zer moduz sentitzen zarete gurasoak izanda? Zuetaz pentsatzen dut maitekiro. Sharyn. N.Y.

LANA

- Euskara eta ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Tfnoa: 79 21 56.
- Edozein lan egiteko prest nago, nahiz eta hispaniar filologian lizentziatua izan. Yolanda. Tfnoa: 79 76 90.
- Fisika eta kimikako maisua behar da. (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 99 17. Mª Jesus.
- Neska prest lanak egiteko. Dei egin 79 49 05 tfnora.

SALEROSKETAK

- Seat Ritmo salgai. Dei egin 79 73 02 tfnora.
- Orbea mendiko bizikleta egoera oso onean salgai, llanta, piñoi eta ardatz berriak. Prezioa 40.000 PTA. Dei egin egunero 22.00etatik aurrera 79 54 65 tfnora. Garikoitz.
- Neskentzako paseorako Peugeot bizikleta salgai. Ia berria. Dei 79 13 49 tfnora. Maria.
- Egoera onean dagoen hozkailua erosiko nuke. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 85 tfnora.
- Bi hilabete 1'erdiko txakurkumeak salgai. Setter arrazakoak. Interesatuak dei egin 79 09 70 tfnora.



ARRASATEN
HILDAKOAK



Fertxu Aranburu,
irailaren 4ean. 64 urte.

Benito Saez Goikoetxea,
irailaren 4ean. 76 urte.

Sabino Aranzabal Telleria,
irailaren 7an, 75 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Mertxe Juldain

Epelde

Argazki-dendakoa



- **Argazkiak ala bideoa?** Argazkiak pertsonalagoak iruditzen zaizkit. Dena den, bideoa ere gustatzen zait.
- **Argazkiak koloreetan ala tzuri-beltzean?** Koloreetan ikusgarriagoak dira, baina tzuri-beltzean ondo eginez gero, oso politak geratzen dira.
- **Bodak ala estudioa?** Estudioan lan egitea nahiago dut, nahiz eta guk bodekin gehiago lan egin.
- **Tarjeta-ala esku-dirua?** Esku-dirua.
- **Telefonoz ala aurrez aurre?** Aurre aurre.
- **Mondrautarra ala arrasatearra?** Mondrautarra.
- **Telebista ikusi ala irakurri?** Telebista ikusi.
- **Pelikulak ala dokumentalak?** Botatzen dituzten pelikula txarrak baino nahiago ditut dokumentalak. Hala ere, pelikula onak gustatzen zaizkit.
- **Erosketak supermerkatuan ala bestelako dendetan?** Nik bestelako dendetan egiten ditut.
- **Egunkaria ala aldizkaria?** Egunkaria.
- **Eskutitza ala telegrama?** Eskutitza.
- **Eskiatu ala igeri?** Ez bata eta ez bestea.
- **Sendagilea ala naturista?** Sendagilea.
- **Lautada ala mendia?** Lautada.
- **Txanpaina ala ardoa?** Txanpaina.
- **Kaseta ala diskoa?** Diskoa.
- **Taxia ala autobusa?** Autobusa.
- **Saldu ala erosi?** Saldu.
- **Igerilekua ala itsasoa?** Itsasoa.
- **Musua ala bostekoa?** Musua.


Bertsotan

Oporretatik eskolara

Ongi ginen gu eguzki galdan zein ederki oporretan, baina korneta jo dute gogor inguruko eskoletan, tripetako min-epidemia sortu da aste honetan, hala diote ume gehienek itxura denez benetan.

Lagun txikien sentimenduan jausi dira mila dorre, agur oporrak, kandela zahar, errezezi zara erre. Hainbat umeren joan nahi eza gogo txar eta haserre, zenbat kasutan izan ote da gurasoen irribarre?

JON IÑAKI IZARZELAIA



Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70


UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua

Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96

Telefax: 793412



L

au pilotari handi, bata bestearen ondoan: **Atano II.a, Atano III.a** (txapelaz), **Sustarra** eta **Mondragones**.

Euskal pilotaren bi belaunaldi elkartuta, bata Mondragonesena eta bestea Atano III.arena. Juan Bautista Azkaraite, "Mondragones", 1891n jaio zen, duela ehun urte, eta 1965ean hil. 1917tik 1926ra frontoietako jaun eta jabe izan zen: bakarka, bakarka bikoteen aurka, bikoteka... edozein


modalitatetan. Pilotari izan aurretik, okina izan zen.

Mondragonesi soldadutza Donostian egitea egokitu zitzaion, eta han zegoela hartu zuen pilotari profesionala izateko erabakia. Mondragonesen ezaugarriak nabariena indarra zen; bera izan zen frontoietatik marka guztiak desagertarazi zituena. Behin, Felix Pradera "Mallavia"ren aurka jokatu zuten; honek ezkerreko eskua-rekin baina palaz, eta Mondragonesek esku biek. Partidua, arrasatearrak irabazi zuen, hori bai, justu samar, 22 eta 21.

Hemen gauza guztiak dutenez

amaiera, Mondragonesen nagusigoari ere iritsi zitzaion berea: Atano III.a izenekoa. Mondragonesek bere txapela 1926 urtean jarri zuen jokoan Atano III.aren aurka. Txapela eskuratu ahal izateko, hiru partidu jokatu zituen azkoitiarrak. Lehenengoan, Atanok bi eskuak erabiliz eta Mondragonesek eskuina bakarrik, azkoitiarrak 22-12 irabazi zuen. Hurrengo bi partiduetan, biak bi eskuz, Atano izan zen nagusi, 22-19 eta 22-12.

Atanori kostatu zitzaion txapela eskuratzeara, baita galtzea ere!, 22 urtetan zehar beste inork ez zuen jantziko eta.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

16 ASTELEHENA

21.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.
 21.20 **Erreportaia**. Larunbatean Monterronen ikusgai izango dugun Harizpe pastoralari buruzko erreportaia.



17 ASTEARTEA

13.00 **Berriak** (bezperakoak)
 13.20 **Erreportaia** (bezperakoa)

18 ASTEAZKENA

21.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.
 21.20 **Musika**, The Barely Works folk taldeak Monterronen emandako kontzertuaren laburpena.



19 OSTEGUNA

13.00 **Berriak** (bezperakoak)
 13.20 **Musika** (bezperakoa)

20 OSTIRALA

21.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
 21.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Bixente Barandiaran, Markoaldeko erremintaria.



21 LARUNBATA

13.00 **Berriak** (bezperakoak)
 13.20 **Erretratoa** (bezperakoa)

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
 EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
 HELBIDEA.....
 HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15

JOSTEKO OIHAL DENDA

Esperientzia duen jostuna
 behar da

Errekabarrena 20, Tfnoa: 79 80 90
 ARETXABALETA

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
 ARRASATE



Hiru hilabetetan zehar *Saltsa-Maltsan* saioaren arduradun moduan aritu eta gero, **Jaione Olabek** ere utzi egingo gaitu. Aurrerantzean, beraz, ezin izango dugu jaki goxorik prestatu berak emandako errezetekin. Lastimal!

Telebelarri

◆ Harizpe pastorala Arrasaten ematea benetan berezia izanen da guretzat; muskilditar askok lehenbiziko aldiz pasatuko dute Hego eta Ipar Euskal Herria banatzen dituen muga; Hegoaldeko euskaldunok aukera aparta izanen duzue gure kultura hobeto ezagutzeko. Beraz, larunbatean, euskaldun guztiok hurbilago sentituko gara elkarrengandik.

Mixel Berzaitz, Muskildiko Alkateak, *Berriak* saioan.

Oporretatik bueltan, dagoeneko lanean hasia da **Asier Aranguren**, ATBko zuzendari berria. Atxabaltarra, Almenen eta Leioako Kazetaritza Fakultatean burutu zituen ikasketak. Bostonen Telebista-Zuzendaritza Masterra egin zuen. ETBko "*Kirolez Kirol*" larunbateko saioan aurkezle, CNN telebista-kate amerikarraren korrespontsala dugu Euskal Herrian. Ez da, ez, fitxaketa makala.



Telebegi

Badirudi telebista pribatuen zain daudela arrasatear guztiak. Irrikaz zain gainera; Tele 5, Antena 3 eta kanal plus bezalako zabor kateak noiz telebistan harapatuko zain. Duela zenbait aste, eta atal honetan bertan, telebista pribatuekiko nire kezka azaldu nuen eta Muru puntako telebista-errepetidoreetan bonbak jartzearen asmoa kaleratu nuen, gure etxeetan kate pribaturik sareez zedin. Orain, eta kate hauek eskaintzen duten produktua ezagutu ondoren, nire asmo hoiak errealitate bihurtu nahi nituzke, zoritxarrez, badirudi gainean dauzkagula eta.

Telebista publikoaren defendatzaile sutsua naiz, kontzepzio ideologiko bezala. Baditu akatsak, ez da denok nahiko genukeen telebista, baina dudarik ez, pribatuen aurrean badago non aukeratu.

Programa hutsak azalez, ideologia eta dirigismo moral nabarmenez bustitakoak muinean. Horixe da aurrerantzean gure telebistatan izango dugun eskaintza; izan ere, ez dago horren komunikabide indartsu eta eraginkorrik interes ekonomiko soila duten 4 pertsonen esku uzterik, produkzioa beti interes horri makurtua egongo da eta.

Pribatuen aurrean, gutxiago ikusi telebista, ongi aukeratu eta begi kritikoz ikusi ikusten duguna. Eta beste aukerarik ez badago, denok Murura!


ANDONI URZELAI



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Bakezale egongo zara eta ezin izango duzu inolako tirabirarik eraman. Gorrarena egitea izango duzu hoberena, bestela mindu baino ez bait zara egingo. Laguna eta bion arteko maitasuna bero-bero egongo da. Sua hartu barik e!



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Merkurio eta Jupiterrek osatzen duten konjuntzioak etorkizunera begiraraziko ditu. Buruargi zaude, baina, urrutiegi begiratzea ere askotan kaltegarria izaten da. Epe motzerako proiektutan kantza ezazu burua geroa etorriko da eta.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Hainbeste espero izan duzun bidaia hori burutzeko aukera suerta liteke egun hauetakoren batean, motxila pronto eduki beraz. Gainera, baliteke urte guztirako zer pentsatu emango dizun harremanen bat bizi izatea. Bizipoza izango duzu.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Ilargian emango dituzu datozen egunak aspertuta egongo bazina. Ez da azalduko gehiegizko ardurarik sortuko dizun egoerarik. Lasai egoteko aprobeztatu, baina, lo hartu barik. Bat baino gehiago urdurituko da zure jarraitaren ondorioz.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra


Laguna eta bion arteko harremana, aparta izango da, Virgo. Inoiz baino hobeto ulertuko duzue elkar. Ezkontzeko edo banatzeko momentu aproposa beraz. Baliteke urdailak non dagoen gogoraraztea. Otordu arin eta garbiak egiten saiatu.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Erre ke erre ari zara pertsona hori zeureganatu nahian. Utz ezazu pakean zurekin nazkatzea baino ez duzu lortuko eta. Inbertsioren bat egiteko momentu aproposa da oraingoa, Capri. Osasunari kasu pixka bat egin beharko zenioke.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Baliteke despistatu samar egotea azken ibiltzearen ondorioz. Baretzea komeniko litzaizuke stressaren menpe ez ibiltzeko. Inoiz ez bezalako biharamunak izaten dituzula konturatuko zara.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Energia eta indarrez gainezka zaude eta baliteke eguneroko eginbeharra bete ondoren soberan gelditzea. Ariketa fisikoa egitea komeniko litzaizuke gehiegi ez kargatzeko. Ohevide aparta izango zara eta laguna txundituta edukiko duzu.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Entzule aparta izango zara datozen egunetan. Ondo baino hobeto ulertuko dituzu besteen arazoak eta laguntasuna emateko prest azalduko. Gustora sentiaraziko zaitu egoera honek. Aholkulari trebea izango zara. Norbait maiteminduta daukazu.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Maisu/maistrarena egiten arituko zara ingurukoekin zure esperientziak besteen jarraipide izan beharko balu moduan. Aholku onak ematea nekeza da baita besteren eskarmentua bereganatzea. Jakinmina nagusituko da zuregan.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Gogoko ez dituzunak alde batera lagatzen ikasi beharko zenuke, bestela, mehatxu batean ibiltzen da zure barrua. Zeureaz ardura zaitetz lasaia sentituko zara eta. Bapo jaten duzu aspaldian eta honez gero hasiko zinen ondorioak antzematen.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Hori da barregura daukazuna, Piscis. Barre egitea botikarik onena da, baina kontuan izan pertsona orok ez dituela arazoak ikusuntu beretik begiratzen, "al loro" beraz. Halere zuk zeurearekin jarraituko duzu, barre eta barre. Ez zara bada handi egingo!

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Arrasaten



Harizpe
pastorala

Irailak

14

larunbata

4.30etan

Monterronen

*Animatu eta
etorri!*

Sekulako ikuskizuna!

Herri-antzerkia: bertsoak, kankak, dantzak...

Antolatzaileak:

AED, Udala eta Maritxu Kajoi Batzordea

**12.30etan KALEJIRA
Monterronen hasita.**

**9.30etan Kataiden
Pastoraleko AFARIA.
(Txartelak: AED, Monte
eta Hiren)**

MIRW

WORLDWIDE COURIER

HIRI ETA ESTATU BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

BIDALKETAK

- HIRI BARNEKO ZERBITZUA
- * Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)
- * Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)
- ESTATU BARNEKO ZERBITZUA
- * Gau eta egun
- NAZIOARTEKO ZERBITZUA
- * Courier zerbitzua
- * Aire-karga zerbitzua
- * Itzulpen zerbitzua

ARRASATE

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa: 79 96 97

EIBAR

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

AZPEITIA

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

DURANGO

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

INFORMAZIOA
900 300 400

ALBACETE, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torreveija**, Avd. Diego Ramirez, 223. Eucenter. T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido**, Alvaro Soto Mayor Gal. Cial. T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJOS**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5 A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Merida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Dorca, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edison, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Cami d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa**, Pº. de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Vía, 1176 bis - **Jonqueras**, Jonqueras, 2 - **Mercurio**, Vía Augusta, 59 - **Nerviñón**, Vía Layetana, 20 - **Windsor**, Vía Augusta, 2 - **Financia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hipercor**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umberto, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 30 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Gomas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetana Ventallo, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premia**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4. Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18 - T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B.**, Plza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genis Aguilar, 25. T. 93-885 62 50 - **Villafraanca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7 - T. 94-443 76 08 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona Servicios - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica**, Bº. Txaporta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comuneros Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31, 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuerteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nillo, loc. 1030 - T. 928-76 66 53 - **TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Val de Uxó**, Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUÑA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Brión, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73 - T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuyet Santamaría, 13. T. 972-21 55 66 - **Figueras**, Verge María, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional II, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972-88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Concilio de Ibon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13. - T. 973-20 57 58 - **Tárraga**, Dr. Riú, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Mellán, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Vía**, Gran Vía, 67 - **Inclubuilding**, Vía de los Poblados, 9 y 11 - Nº. 3. Sor Angela de la Cruz, 24 - Nº. 4, Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº. Castellana, 51 - **División Internacional**: Coslada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25,8. Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. García Lorca, s/n. Urb. Delta. T. 91-638 78 97 - **Getafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albarracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n. L.3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparil, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torredelmar**, Urb. Pueblo Rocio, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascales, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya. T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Perlera, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Díaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia. T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Vilagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeitia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondrágon**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n. Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Cecelonio, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Hidalgo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28. G. C. Loc. 10. T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2**: Francisco Javier, 9. **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Amposta**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Tortosa**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D 8. T. 974-60 85 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-80 02 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Gorriza, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alicia**, Plza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandia**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Plza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.



ko kide



WORLDWIDE COURIER



ko kide